txintxarri

2017-03-03 OSTIRALA / 1370. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Berdintasunaren sokari tiraka

Sexuen arteko oreka lortzeko herriko gazteekin egiten diren lanketa ezberdinak aztergai . / 8-9

TXINTXARRI

Emakumeen eguna

Martxoaren 8a ospatzeko ekintza egitaraua prestatu du udalak /3

Elkarbizi taldeak hainbat jardunaldi egingo ditu aurten ere eskualdeko herrietan / 2

LOKEko Judoka gazteek 5 domina lortu zituzten asteburuan Durangon / 10

Martxoan emango diote hasiera aurtengo programari eta hainbat ikastaro aurreikusi dituzte horretarako. TXINTXARRI

Sei ikastaro antolatu ditu Elkarbizik 2017rako

2014. urtean sortu zen Elkarbizi egitasmoa,orain hiru urte, eta aurtengo programaren azalpen publikoa egin du taldeak. Bizikidetza eraikitzeko dagokien hondar alea jartzen ari dira, bizikidetzaren oinarri sendoak eraikitze bidean ari da lanean taldea

Maddi Noriega

Martxoan hasiko du 2017ko programa Elkarbizi taldeak eta urrira bitarte sei ikastaro izango dira bailarako herri ezberdinetan.

Lehenengo ikastaroa, eredu humanistak ezagutzeko lanari jarraiki, Arizmendiarrieta zenaren bideaz arituko dira. Saio honetan, Arizmendiarrieta zenak 1941. urtetik 1975. urtera, Arrasaten egindako lana izango dute aztergai; auto-erantzukizuna eta elkarlana bizikidetzarako gako "oso onuragarriak" direla ziur uste du taldeak. Saio hau Astigarragan izango da, martxoaren 8an hasiko da eta urrira bitarte iraungo du.

Lehen saioaren ostean, 'Tormentuaren memoria osoaren alde'-ko hiru ikastaro izango dira. Elkabizi taldeak, horren alde azaldu nahi du; "estatuaren zerbitzariek egindako torturak eta tratu txarren inguruan Euskal Gobernuaren ekimenez ikertu dena ezagutu ahal izango dugu hiru saio horietan". Horrela azaldu zuen taldeak igorritako idatzi batean. "Ezin dugu ezagutu gabe utzi milaka herritarrek sufritu dituzten indarkeriaren adierazpen kaltegarriak", horien memoria zabaltzea beharrezkoa dela uste du taldeak Horrela, honako hiru ikastaro hauek bildu dira bigarren ikastaroaren baitan. Lehena, 'Tortura eta tratu txarrak' izango da, apirilaren 5ean, Lasarte-Orian. Bigarrenean, 'Sufrimendua banandu: jazarpen indarkeriaren arrastoaz arituko dira, ekainaren 10ean, Hernanin. Eta azken eta hirugarren saioan, berriz, 'Zerga iraultzailearen biktima isilak' izango da hausnarketarako gai. Azken hau, herrian egingo dute, irailean.

Guzti honekin batera, terrorismoaren eta bortxakeriaren inguruan euskal gizarteak hartu duen jarrera ere argitara ekarri nahi du Elkarbizik. Eztabaida ugari piztu dira gai honen inguruan eta horietatik ihes egin nahi ez dutela argudiatuta, Euskal Unibertsitateak egindako ikerketa psiko-soziologikoak ezagutzera emango dituzte laugarren saio batean. Hau, Urnietan izango da eta irailerako aurreikusi dute.

Aurtengo ikastaroekin amaitzeko, bosgarren saio bat ere izango da, urrian. Horretarako, bizikidetzarako sendotzak espiritualitate jakin bat eskatzen ote duen galdegingo dio taldeak. gai horren inguruan hitz egitera gonbidatuko dituzten aditue

MARTXOTIK URRIRA BITARTE HAINBAT IKASTARO ANTOLATU DITU ELKARBIZIK

Hiru urteko ibilbidea

2014. urtean sortu zen, Donostiako bailaran, Elkarbizi taldea. Ekimenaren lehen urtean, elkarbizitzaren aldeko jardunaldiak eta ikastaroak antolatu zituzten, eta bigarren urtean, berriz, zortzi ikastaro burutu zituzten.

Sahara Errepublika Arabiar Demokratikoarekin elkartasuna

Sahara Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela 41 urte bete direla eta, elkarretaratzea egin zen

Martin Vicioso

Astelehenean hainbat herritar bildu ziren Okendon Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoari elkartasuna adierazteko. Bertan izan ziren, halaber, ordezkaritza duten Udal talde hainbat, hala nola, PSE-EEko, EH Bilduko, Lasarte Oriak Ahal Du-ko eta EAJko zinegotziak. SEADren 41. urteurrena ospatze asmotan, bere bandera zintzilikatu dute Udaletxean.

Bozeramaileen Batzordeak dokumentu bat onartu eta zenbait eskakizun luzatu ditu.

Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan ematen diren "etengabeko giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmoa eta erabateko gaitzespena" egin dute.

Halaber, NBEri eskatu diote Erreferendumaren aldeko misioari "giza eskubideen arloko eskuduntzak" emateko. Espainiar estatuak Marokokoari armak saltzeari utz diezaiola galdegin dio Udalak. Hau da, "bere legedia" errespeta dezala, "gerran dauden estatuei armak saltzea debekatua dagoenez gero"

Herri galdeketa Zubietan

Zubietak ere galdeketa egingo du Maiatzaren 7an. Zubietak bere herri izaera baduela garbi daukate, eta herri gisa agerraldi publikoa egitera doazela adierazi du Zubietako Gure Esku Dagok. Martxoaren 14an egingo dute aurkezpen publikoa, eguerdiko 12:00etan, Errebote Plazan, eta prozesu honen antolaketa bilerak asteartetan egingo dira, Kaxkapen, 19:00ean.

GED

TXINTXARRI

Ertzaintzarekin protokoloa

Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa hobetzeko hitzarmena sinatu da. Udalaren eta Ertzaintzaren arteko protokolo berriak aurrekoa ordezkatuko du. "Bi polizien arteko elkarlana eta eraginkortasuna hobetzea" du helburu bakoitzaren betebeharrak eta lan-esparruak zehaztuz.

Hamaika ekintzaz beteriko Martxoaren 8a

Astelehen eguerdian eman zuten ezagutzera Martxoaren 8rako, Emakumearen Nazioarteko egunerako, antolatu duten progama, Emakumeen Zentro Zibikoan egindako agerraldian. Adin guztiei zuzendutako hainbat ekintza izango dira egun ezberdinetan

Maddi Noriega

Egitarauaren berri eman zuten astelehenean udal ordezkariek Emakumeen Zentro Zibikoan egindago aurkezpen ekitaldian.

Jesus Zaballos alkatea izan zen hitza hartzen lehena; "Lasarte-Orian berdintasunaren alde egiten den lana sustatu nahi dugu". Honekin batera, genero berdintasunak Lasarte-Oriako Udaleko sail guztietan "transbertsala" behar duela izan ere adierazi zuen.

Emakumeei zuzendutako ekintza gehienak Martxoaren 8aren bueltan egiten badira ere, Udalak martxan duen 2016-2019ko Berdintasun Planaren eta Udaletik babesten diren berdintasunerako hainbat ekimenen bitartez, "oso presente" eduki nahi dute gaia. Adibidez, 'Guztion Lasarte-Oria!' mural lehiaketarako berdintasunaren gaia hautatu da.

Udal ordezkari eta teknikariek aurkeztu zuten Martxoaren 8ko egitaraua. TXINTXARRI

Ekintza ugari

Martxoaren 5ean emango zaio hasiera egitarauari. Egun horretan, 'Figuras ocultas' filma eskainiko da Manuel Lekuonan, 19:30ean 5 euroren truke.

Hurrengo egunean, martxoak 6, bi ekitaldi izango dira; 17:00etatik 20:00etara kartel lehiaketako erakusketa zabalduko da Antonio Merceron eta 18:00etan, ipuin kontalaria egingo da jubilatuen elkartean.

Martxoaren 8an, kartel lehiaketako lanen erakusketa mantendu eta 18:00etan horien sari banaketa egingo da. Martxoaren 9an, bost urtetik aurrerako haurrentzat ipun-kontalaria egongo da liburutegian.

Martxoaren 10ean berriz, 'Agora de mujeres' antzerkia ikusteko aukera izango da, kultur etxean eta 3 euroren truke. Gauean, emakumeen afari bat egin asmo dute, Semblante Andaluz-en. Izan ere, elkartearen 25. urteurreneko ospakizunetan, emakumeen afaria aurreikusi zuten. Hori aprobetxatuz, elkarrekin egingo dute; "berdintasunaren bidean elkarrekin lan egin behar dugu" esan zuen Lourdes Acevedok.

Amaitzeko, martxoak 11an, Zumba Maratoia egingo da 11:00etan Okendon. 13:00etan elkarretaratzea, eta 20:00etan, 'Koadernoa zuri' antzezlana eskainiko da, kultur etxean.

NEURE KABUZ

MAIDER SEGUROLA

Erabaki 2017-05-07

Azken asteetan Lasarte-Oriara inguratu denari herria salgai dagoela irudituko zitzaion akaso lehen begiratuan. Hori bai, telefono zenbaki xelebre samarra dute etxejabeek... eta iruzur egiteko zenbaki horietakoren bat izango dela pentsatuko zuen segidan. Eta nola da posible etxe berean lau bizilagunek pisua saldu nahi izatea? Erraustegia eraikita eta martxan al da ba dagoeneko?

Azken asteetan Lasarte-Oriara inguratu dena, herriak erabakitzeko grina duela ohartuko zen leihoetan agertzen hasi diren kartelei ongi erreparatuz gero. Aurretik beste hainbat herrietan egin bezala, maiatzaren zazpian gure txanda izango da eta Gure Esku Dago ekimenak antolaturiko galdeketan parte hartzeko aukera izango dugu 14.000 herritarrek.

Etxeak salgai edo alokairuan daudela adierazteko erabiltzen diren txarteltxo deigarriak balkoi eta leihoetan ikusten hasi gara poliki poliki eta Lasarte-Orian ez ezik, inguruko herrietan ere sortu dute jakinmina. Herri galdeketak antolatu dituzten hainbat tokietatik jarri dira hemengoekin harremanetan antzeko ekimenak martxan jartzeko gogoz. Hori bai, marka litzateke gure mugetatik kanpo era honetako kartel gehiago ikustea jatorrian bertan baino, ezta?

Maiatzaren 7ra arte bi hilabete ditugu aurretik Gure Esku Dagoela gure leihotik bertatik aldarrika dezagun.

Argi eta Iñaki gogoan

Hamalau urte bete dira Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi dispertsio politikaren ondorioz hil zirenetik, eta horien omenez, elkarretaratzea egin zuten astearte eguerdian, Askatasunaren parkean. Ekitaldi horretan, "dispertsioa giza eskubideak momenturo urratzen dituen tresna dela" azaldu zuen Lasarte-Oriako EH Bilduk, eta horren behin-betiko amaiera eskatu zuten bertaratutako herritarrek.

TXINTXARRI



Udal ordezkariek egin zuten asteazkenean agendaren aurkezpena. TXINTXARRI

‘Go!azen’ antzezlan arrakastatsua gurean

Martxoaren 8a izango da hilabetearen ardatz nagusietako bat hala ere, ‘Go!azen’ fenomenoa nabaritu da gurean eta bigarren saio bat antolatu da egun berean, 19:00etan, sarrerak atzo jarri ziren salgai

Maider Azurmendi

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak hilabeteko protagonistak izango diren arren, mota guztietako ekintzak izango dira aukeran hilabete honetan.

Egitarau berriari bihar emango zaio hasiera. Bihar eta etzi, Islada Ezkutatuak taldeak Antonio Mercero gunean Gerra Zibilari buruzko hitzaldiak antolatu ditu izan ere, ostiralean bertan Udaletxeko harreran Txaldatxurmendian aurkitutako materialaren erakusketa iraunkorra inauguratuko da.

Bestalde, Martxoaren 8an Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatzen denez, Emakumeen Zentro Zibikoak gaiari buruzko kartelen erakusketa antolatu du ere. Erakusketa hilaren 6an, 7an eta 8an ikusi ahalko da Mercero gunean. Bi antzezlanek itxiko dute programazioa, Lan eta Lan antzerki-talde amateurrak 'Ágora de mujeres' eskainiko du, eta Hika teatro-konpainiak 'Cuaderno blanco'.

Go!azen fenomenoa

Antzezlanei dagokionez, martxoaren 12an 'Go!azen' euskarazko obraz ere gozatu ahalko da.

Honakoa herrira dator Ttakunek gauzatzen duen Gazte Kluba programaren eskariz. Izan ere, Euskal Herrian orokorrean izaten ari den arrakasta gurean ere nabaritu da, 17:00etan zen saioa eta honetarako sarrerak bi egunetan agortu ziren. Hau ikusita, bigarren saioa egun berean 19:00etan programatu ahal izan dute. Sarrerak honetarako atzo jarri ziren salgai Manuel Lekuonan eta Interneten.

Haurrentzako antzerkiari dagokionez, Gorakadak 'Titirikontu kontari' lana programatu da. Bi dantza ikuskizunez gozatu ahalko da ere, hilaren 24an 'Hormek diote on stage' obraren estreinaldia izango da, DSS2016rako landutako proiektuan oinarritua eta Haatik-ek sortua. Hilaren 25ean Gero Axular Dantza taldearen 'Itzal galdua' saioaren txanda izango da.

Hilaren 30ean Tobera musika-eskolaren saio batez gozatu ahalko da, eta hilaren 31n Erregioetako Etxeek antolatutako folklore-jaialdiaz. Egun horretan bertan ikusi ahal izango da 2016an antolatutako Euskararen 9. Maratoiari buruz egin den bideoa. Martxoaren 17an ere, Korrikaren aurkezpena egingo da.

Zinea

Haurrentzako zinema saioei dagokionez, martxoaren 5ean 'Axel' filma ikusi ahal izango da euskaraz, 19an 'Ballerina' ere euskaraz, eta 26an 'Batman Lego 3D'.

Helduentzat martxoaren 5ean 'Figuras ocultas' eskainiko da, hilaren 19an 'Lion', eta 26an 'El guardián invisible'.

Okendo zine-forumak, berriz, hilaren 17an 'Captain Fantastic' filma proposatu du, eta 31n 'Gutik gura' emango da Korrika Kulturalaren baitan.

Islada Ezkutatuak taldearen aurkikuntzak Udaletxean

Materialaren erakusketa iraunkorra zabalduko da gaur 18:30ean Udaletxeko sarreran

Txintxarri

Islada Ezkutatuak taldeak urteak daramatza Txaldatxurren eta orokorrean, memoria historikoaren inguruan lanean. Herrian geratzen ziren Gerra Zibileko aztarnen bila jarri zen taldea ia bere sorreratik 2012. utean.

Urtetako lanaren ondorioz, asko izan da aurkitutako materiala baina bereziki "Gipuzkoako frentean erabilitako eskuz egindako artefaktuak" bildu dituzte gaur zabalduko den erakusketan. 18:30ean izango da inaugurazioa eta jarraian bi hitzaldiez gozatu ahal izango dute parte hartzaileek.

Hitzaldiak

Bart eskaini ziren Antonio Mercero gunean elkarteak erakusketaren harira antolatutako lehenengo bi hitzaldiak.

Horrela izanda, Julen Lezamizek 'La Guerra Civil en Gipuzkoa' hitzaldia eskaini zuen. Honek gerrak lurraldean izan zuen garapena azaldu zuelarik. Jarraian, 'Euskal Emakumeak Gerra Zibilean: Cecilia G. de Guilarte' izenarekin, Ana Urrutiak emakumeen paperaz jardun zen, Guilarte korrespontsal tolosarraren adibideaz mintzatu zen. Lezamizek emakume honen inguruko liburua ere idatzita du eta solasaldi atseginaz gozatzeko aukera izan zen.

Gaurkoan, 19:00etatik aurrera, lehenengo Asier P. de Eulatek azalpenak emango ditu, erakusketan jarritako eskuz egindako artefaktuen inguran eta ondoren, Joxean Muguruzak Txaldatxurreko frenteaz mintzatuko da. Hitzaldiak irekiak dira eta parte hartzera deitzen dituzte herritarrak.

Biyak Bateko kideek Baztanera irteera egingo dute martxoan

Lasarte-Oriako Biyak Bat helduen egoitzako kideak Baztanera egingo dute irteera martxoan; aditzera eman dutenez, datorren hilaren 15erako antolatu dute aipatu irteera.

Goizeko 08:30ean irtengo dira Lasarte-Oriatik (Biyak Bat egoitza paretik, eta Zugarramurdiko museoa eta kobak bisitatu asmo dituzte.

Bisitez gain, eguerdian, bazkari eder batetaz gozatzeko tartea ere izango dute, Hotel Baztanen.

Bertara joateko izen emate epea martxoaren lehenean irekiko da, eta bi prezio finkatu dituzte; alde batetik, Biyak Bat elkarteko bazkide direnek, 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 45 euroren truke egin ahal izango dute irteera.

Izen-emateko ordutegia 10:30etatik 12:30etara izango da, astelehenetik ostiralera.

Gazte enplegua sustatzeko Hazilan ekimena martxan

Hazilan, gazte enplegua sustatzeko programaren bigarren edizioa, martxan dago. Izen emateko epea martxoan itxiko da udalak jakitera eman duenez.

Hazilan programak "etorkizuneko proiektuak dituzten enpresak identifikatzen ditu eta lan bat lortzeko behar diren baliabideak eskaintzen dizkie gazteei".

Programa hau unibertsitate-titulua edo goi-mailako prestakuntza-zikloa duten eta langabezian dauden 20-35 urteko gazteei zuzenduta dago.

Informazio gehiago nahi duenak, hazilan@andoain.eus helbidera idatzi edota 943 304 221 telefonora dei dezake. Zalantzak edota informazio gehiago ere eskuratu daiteke www.hazilan.eus-en. Egitasmoa Garapen, eskualdetako garapen agentziak barne hartzen dituen elkarteak sustatzen du.

Andaluzia eguna ospatzeko asteburua

Andaluzia eguna izan zen asteartean eta Semblante Andaluz Elkarteak antolatuta, ekintzaz beteriko egitarauaz gozatu ahal izango da larunbat eta igandean. Astearteko ohorezko ardo eta luntxarekin eman zieten hasiera ospakizunei

Asteartean, Andaluzia egunez eman zieten hasiera ospakizunei TXINTXARRI

Maddi Noriega

Andaluzia eguna da otsailaren 28a; ospakizun eguna Lasarte-Oriako Semblante Andaluz Elkartean.

Asteartean bertan, gauean egindako Ohorezko ardoarekin eta luntxarekin eman zioten hasiera ospakizun asteburuari.

Aurretik, zuzendaritza-batzorde berriaren izendapena egin zuten eta José Perez izango da, berriz ere, elkarteko lehendakari.

Astearteko ekintzekin batera, larunbat eta igandean ere hamaika ekitaldi izango dira, goiz eta arratsalde.

Martxoaren 4an, esaterako, haurren eguna izango da eta Porrotx pailazoaren, Jalgune Elkartearen, 'Gitanillas de Alba' taldearen eta 'Duende'-ren saioa izango da, arratsaldeko 17:00ean, Semblante Andaluz Elkartean.

Emanaldia amaituta, askari eder bat egingo dute 'Hermandad Ntra. Sra. del Rocio' Elkarte Kulturalaren lankidetzarekin.

Igandean, berriz, 'Semblante Rociero' koruak lagundutako meza izango da, goizeko 11:00etan Arantzazuko amaren elizan.

Honen ostean, herri-bazkariari hasiera eman aurretik, Andaluziaren ereserkia abestuko dute.

Arratsaldean, berriz, Manolo de Badajoz gitarra-jotzaileak 'El ruiseñor de la Mancha' flamenko abeslariarekin emanaldia eskainiko du, elkartean bertan.

Asteburuko ospakizunei amaiera emateko, dantzaldi herrikoiaz gozatu ahal izango dute.

Hogeita bosgarren urteurrena

Mende laurdeneko ibilbidea bete du aurten Semblante Andaluz Elkarteak, eta hori ospatzeko egitarau berezia izango da martxoaren 28tik apirilaren 2ra bitarte.

Horretarako, Lasarte-Oriako zein kanpoko hainbat taldek hartuko dute parte.

Errigorako Udaberriko kanpaina iritsi da

Nafarroa hegoaldeko euskalgintza sustatzeko ekimenak aurrera darrai, olioa eta kontserbak eska daitezke orain

Udaberriarekin batera Errigorako olioaren eta kontserben kanpaina martxan jarri da. 2012an ekimena abiatu zenean 2 ekoizlerekin hasi zen eta jada 22 dira.

Olioaren kasuan lehen aldiz oliba mota ezberdinak dastatzeko aukera eskainiko da 4 bidoiko lotea eskainiz. Horretaz gain, produktuak konbentzionalean ez ezik, ekologikoan ere eskuratu ahal izango dira lehenengoz.

Sustatzaileek adierazi dutenez, berrikuntza bat izango dute bi kanpainek; olioa zein kontserben eskaerak aldi berean egingo dira martxoaren 1etik 14ra. Dagoneko herriko puntu ezberdinetan daude eskuorriak, Ttakuneko bulegoa tartean.

Jendeak bi kanpainen eskaerak epe honetan egin arren, "banaketa bi kolpetan egingo da". Gurean banaketak Ttakunenean egingo dira; Olioa martxoaren 28an, 16:00etatik 19:00etara eta martxoaren 29an, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00tatik 19:00tara.

Kontserbak, maiatzaren 30ean, 16:00etatik 19:00etara eta maiatzaren 31n berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00tatik 19:00tara.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

GURE IKASLEEN AHOTAN

“PBL-ean oinarritutako metodologia azpimarratuko nuke”

Maitane Carrasco Nuñez (Lasarte-Oria)
Energiaren Ingeniaritzako graduko 3. maila ikasten ari da, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikako Orona Ideo campusean, Hernanin.

Zergatik aukeratu zenuen gradua?

Ingeniaritza bat ikasi nahi nuen eta Energiaren Ingeniaritza aukera interesgarria iruditu zitzaidan, gaur egun Elektronika eta Energia berriztagarrien arloak indartzen ari dira eta.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA aukeratzerakoan, zer hartu duzu kontuan: unibertsitatearen ospea, kokapen geografikoa, instalazioak, ingurukoen iritziak, ate ireki saio batean entzundakoa…?

Ikasketa sistema oso interesgarria iruditu zitzaidan; ebaluazio jarraia eta PBL-a ez delako unibertsitate askotan eskaintzen. Proiektuaren bitartez, lan-arlora hurbiltzen zara eta GBL-rako prestatzen zaitu eta abantaila handia da. Honetaz gain, kokapen geografikoa ere faktore garrantzitsua izan zen.

Eta bat dator espero zenuena eta gero bertan aurkitu duzuna?

Hasieran gogorra izan zen metodologia jarraitzea, baina azkenean ohitzen joaten zara. Hala ere, kurtsoetan zehar zer gertatuko den ideia jakin bat izan arren, seihileko bakoitzean espero ez diren egoerak agertzen dira baina, pausoz pauso eta lanaren poderioz, aurrera atera daiteke.

Graduko zein alderdi nabarmenduko zenuke?

Graduan zein Mondragon Unibertsitatean nabarmendu daitekeena, PBL-aren alderdia dela esan daiteke. Gradua amaitutakoan eta lanean hasterako garaian esperientzia maila bat ematen du eta.

Nolakoa da ikasteko metodologia, alde handia dago Batxilergokoarekin alderatuz gero?

Batxilergoarekin alderatuta, jauzi handia dago. Alde batetik, ikasgai asko nahiko ezezagunak dira eta zaila egiten da hasieran. Bestalde, ikasteko erritmoa konstanteagoa da unibertsitatean.

Eta irakasleekin eta beste ikasleekin harremana?

Gradua berria denez, ikasle kopurua ez da oso ugaria eta irakasleen eta ikasleen arteko harremana oso estua izaten da. Edozein zalantza izanez gero, bakarkako bilerak oso lagungarriak iruditzen zaizkit.

Proiektuak dira ikaste-prozesuaren ardatzetako bat. Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?

Aldaketa klimatikoa dela eta, energia berriztagarrien erabilera beharrezkoa bihurtzen ari da honakoa saihesteko. Horretarako eguzkiaz baliatzen den plaka termiko baten instalazioaren diseinua eta kalkuluak gauzatu ditugu, eguzki energiaren aprobetxamendu egoki bat egin eta ur sanitarioaren (ACS) berokuntza gauzatzeko. Etxebizitza guneak edota industria guneak ur beroaz hornitzeko erabiliko da.

www.mondragon.edu/prest

TXINTXARRI ALDIZKARIA 2017-03-03 OSTIRALA

INAUTERIEZ GOZATUZ

GIRO EDERRA HERRIAN ASTEBURUAN ZEHAR

Asteburu koloretsua eta jai-giro etengabea izan zen aurrekoa. TXINTXARRI

Luzaroan gogoratuko dute lasarteoriatarrek pasa den asteburua: eguraldi ezin hobea lagun, topera ospatu zituzten Inauteriak. Urtebetez itxaron ostean, gogotsu heldu zioten festari herritarrek, eta nabaritu zen: herriko kaleetan orotariko mozorroak ikusi ahal izan ziren asteburuan zehar, koloretsuak eta originalak.

Larunbatean konpartsak izan ziren protagonista goizean zehar: Okendo plazan bildu eta euren arteko lehiaketa egin zuten gero; Erketzek irabazi zuen. Bien bitartean, inguruetan jadanik sekulako giroa zegoen, eta jende asko kalean, mozorrotuta eta festa-giroaz gozatzen. Arratsaldean konpartsek herrian barrena desfilatu zuten eta goizeko festa are handiago bilakatu zen, oraindik eta jende gehiago atera zelako. Parranderoek gaueko ordu txikietara arte geratu ziren kalean. Horietako zenbait Okendo plaza atzealdeko karpan aritu ziren dantzan, diskojaiarekin.

Iganderako ere gorde zituzten indarrak lasarteoriatarrek, eta eguerdian poteatzera atera ziren asko, Ttirriki-Ttarrakako kideen doinuez lagunduta. Arratsaldean berriz, mozorro lehiaketan hartu zuten parte zenbaitek, eta dantza egitera animatu ziren gero asko, 'Rockalean' taldeak eskainitako emanaldian zehar. Orain, hurrengo urtera arte itxaron beharko berriro; bitartean, aurreko asteburuan bizitako uneak gogoratzearekin konformatu behar.

Erketzek irabazi zuen larunbat eguerdiko konpartsa lehiaketa. TXINTXARRI

Orotariko mozorroak ikusi ahal izan ziren asteburuan herrian. TXINTXARRI

Larunbat arratsaldean hippieak ere desfilatu zuten herriko kaleetan zehar. TXINTXARRI

Igandeko mozorro lehiaketako hainbat parte-hartzaile. TXINTXARRI

Castellers kataluniarrak ere ez ziren falta izan pasa den asteburuan. TXINTXARRI

2015. urteko KTG eguneko ekintzan neska eta mutil gazteak, denak elkarrekin jolasean. TXINTXARRI

"Elkarrekin, berdintasunean bizitzea merezi dugula uste dut"

ONESKI BARANDIARAN, OSCAR ARANDA ETA KUADRILATEGI

Datorren asteazkenean, hilaren 8an Emakumearen Nazioarteko eguna izango da. Lasarte-Orian berdintasunaren aldeko lanketan dihardute ikastetxe eta asialdian

Martin Vicioso / Maddi Noriega

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko eguna da. Baina ez bereziki ospakizunen eguna, aldarrikapenena baizik.

Geroz eta gizarte parekideago batean bizi garela ospatu beharra dago, noski, baina oraindik ere, lan handia dago egiteko eta generoen arteko ezberdintasun hainbat oso presente daude, oraindik, egunerokotasunean.

Horri begirada bat bota eta egoeraren errepasoa egin asmoz, herriko gazteen arteko jarrera eta ikuspuntuak, ikastetxeetan egiten den lanketa, eta beste hainbat datu bildu nahi izan ditu Txintxarri-k eta horretarako, herriko eragile ezberdinekin bildu gara gaiaz hitz egin eta egungo egoeraren inguruko informazioa jasotzeko.

Ikastetxeetako lanketa

Berdintasunean oinarritutako baloreen transmisio heziketan dihardute Lasarte-Oriako ikastetxeek; "gaiarekiko interesa dugu, landu beharrekoa dela uste dugu, baina ez da erraza". Horrela adierazi du Oneski Barandiaran Landaberriko orientatzaileak.

"Eskoletatik genero berdintasunaren inguruan hainbat balore eta aspektu barneratuak daudela uste dugu, baina errealitatean, hori horrela denik ez dut uste; estereotipo asko oso barneratuak dauzkagu oraindik ere, eta asko dugu lantzeko".

Honekin batera, Lasarte-Oriako kultur aniztasuna ere ekarri nahi izan du gogora, Barandiaranek. "Lasarte-Oriak kulturalki duen aniztasunak aberastasun handia ekarri du herrira, baina aldi berean, genero berdintasunaren ulermenari dagokionean hemen eman diren aurrera pausuak berriz ere planteatu behar izatea ere ekarri du".

Berdintasunaren bidean, lanketa ezin daitekeela erlaxatu ere argi du ikastetxeko orientatzaileak; "lanketa honetan ardura bat hartzen dugu ikastetxeetatik, baina desgraziaz, oso gordina da begien aurrean dugun errealitatea, eta behar baino tresna eta baliabide gutxiago dauzkagu nahiko genukeen guztia egiteko".

Egun ikastetxeetan nabari daitezkeen ezberdintasunen inguruan galdetu, eta ikasketak aukeratzeko prozesuaz mintzatu da Barandiaran, besteak beste.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu eta goi-mailako ikasketetara salto ematerako orduan, oraindik ere generoak markatutako bereizketa handia gertatzen dela nabarmentzen du orientatzaileak. 2014-2015 ikasturteko datuek informazio hori berresten dute; Artea eta Gizarte Zientzietan 3.901 emakume eta 2.483 gizonezko ikasle izan ziren; zientzietako ikasketetan 2.106 emakumezko eta 1.867 gizonezko; osasun zientzietan 6.318 emakume eta 2.142 gizonezko; gizarte eta lege zientzietan 17.920 emakumezko eta 13.017 gizonezko; eta ingeniaritzan, berriz, 4.630 emakume eta 11.812 gizonezko ikasle izan ziren. "Urte luzeetako tendentzia da ikasketena eta arlo honetan ez da aldaketa nabarmenik eman. Honen atzean genero ikuspegia ere badagoela argi izan behar dugu".

Generoen arteko bereizketa

Lan munduan, kirol munduan, maitatzeko moduan..., hainbat dira egun generoaren ikuspegitik ematen diren bereizketa eta ezberdintasunak.

"GAIAREKIKO ARDURA HARTZEN DUGU IKASTETXEETAN, BAINA ERREALITATEA OSO GORDINA DA"

Orain urte batzuk atzera egin eta arlo horiei erreparatuko bagenie, zerbait aldatu dela esan daiteke; aurrera pausuak eman dira, noski baina oraindik ere nabarmenak dira aspektu horietan ematen diren genero ezberditasunak.

Azken honekin bat datoz Oneski Barandiaran orientatzailea, eta Oscar Aranda Emakumeen Zentro Zibikoko sexologoa.

Lan arloan, adibidez, "ezberdintasun ugari" daudela gaineratu du Arandak. "Soldaten kasuan, alde nabariak daude oraindik ere gaur egungo emakume eta gizonezko langileen artean". Hego Euskal Herriko emakumezko langileek, batez bestez, 7.710 euro gutxiago irabazten dute urtero. Hortaz, emakumeen batez besteko soldatak %33,6an handitu beharko luke gizonarekin parekatzeko.

Honekin batera, batez-besteko urteko irabazien datuek ere argi uzten dute emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna; Hego Euskal Herrian, 22.976,66ko irabaziak izan zituzten bitartean, gizonezkoen artean, 30.686,34ekoak izan ziren, hau da 7.709,68 gutxiago emakumeen kasuan.

Etxeko lan eta senideen zaintzari dagokion ardura emakumeek izan badute ere, gaur egun, aurrerapauso eta aldaketa sumatu dela ere adierazten du Arandak. "Emakume eta gizonek, garai batean ez bezala, modu partekatuagoan egiten dituzte etxeko lanak, baina zaintzari dagokionean, oraindik ere emakumeengan dago. Belaunaldi berriak datoz, eta beste jarrera zein balio batzuk transmititzen ari gara, pixkanaka".

Bikote harreman sendoak

Harremanen inguruan galdetutakoan, "oso bikote harreman sendoak" egiten direla irmo adierazten du sexologoak. "Emakumeek presio ugari jasaten dituzte mutil zein neska batekin baino gehiagorekin egoteko nahia sentitzen dutenean. Hori eginez gero ziur dakite ingurukoen presio eta irainak jasan ditzaketela eta

"BERDINTASUNAREN HAINBAT BALORE BARNERATUAK DAUDELA USTE DUGU, BAINA EZ DA HORRELA"

Oneski Barandiaran orientatzailea eta Oscar Aranda sexologoa berdintasunaren alde ere ari dira lanean, Lasarte-Oriako gaztetxoekin. TXINTXARRI

hori guztia ekiditeko, bikote oso sendoak osatzen dituzte, gaztetatik".

Gizonezkoek aldiz, askatasun gehiago izaten dute harreman horiek izaterako orduan. Ez dute emakumeak duten bezainbesteko mugarik sentitzen emakume batekin baino gehiagorekin egoteko, ez eta nahi duten harremanak sortzerako unean.

Guzti hau ere aldatuz doa pixkanaka, baina oraindik ere betiko joerek pisu handia dute.

Herri mailako lanketa

Zehar lerro moduan, urte guztiko jarduna izaten da herriko ikastetxeetan genero berdintasunaren inguruan egiten den lanketa. "Martxoaren 8a eta azaroaren 25a bezalako egun seinalatuei garrantzirik kendu gabe, gaitasunetan trebatzeko lan ildo bat dugu martxan, eta horren baitan sartzen da, baita ere, hezkidetzaren esparrua", azaldu du Landaberriko orientatzaileak.

Oscar Aranda sexologoaren hitzetan, ikastaroak, tailerrak eta beste hainbat dinamika ere burutzen dituzte gaztetxoekin gaia landu eta prozesu bat martxan jarri asmoz. "Tailer eta hitzaldi horietan, hezkidetza lantzen dugu nagusiki; maskulinitate berriak, generoen arteko tratu onak, eta beste hainbat alderdi".

Hezkuntza zentroetako dinamikekin batera, Lasarte-Oriako Gaztelekuan ere sexuformazio eta aholkularitza zerbitzua martxan du Arandak.

Egin beharreko aldarria

Oraindik ere berdintasuna lortze bidean lan asko dago egiteko eta horregatik, Oscarrek esan moduan, "aldarrikapena beti egon behar da mahai gainean". Sexologoaren ustetan, indarkeria matxistaren aurkakoa da egin beharreko aldarrikapen nagusia, hori baita "izebergaren punta", baina horren azpian beste hamaika arazo badira, eta horien guztien aldeko aldarrikapena eta lanketa beharrezkotzat du. Emakume eta gizonak jendarte berean bizi gara eta berdintasun batean elkarrekin bizitzea merezi dugu".

Gaztetxoei buruz solasean

Gaztetxoen artean genero indarkeriari buruzko kontzientziarik baden aztertzeko Kuadrilategi ekimeneko begiraleengana jo dugu. 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin egiten dute lan, eta gertuko ikuspegia eman digute. Jon Pello Artetxek eta Sara Pavok, zehazki, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin egiten dute lan astero.

Azaldu dutenez, genero indarkeriaren arazoaz jabe dira, baina ez dute "bereziki gertukoa" sentitzen. Hala ere, ez dute uste gai honekin soilik gertatzen denik. "Gizartean pil-pilean dauden beste zenbait arazo ere ez dituzte komentatzen". Dena den, gaztetxoak zuzenean eragiten ditu genero indarkeriak.

Oso urrutira joan gabe, Euskal Herrian azken hilabetean eman den bortxaketa biktima bat nerabea da. "Halako kasu bat gelan edo oso gertu ikusiko balute, beste sentsibizazio bat sumatuko genuke. Bestela, albistegietan ikusi daitekeen albiste latz asko bezala ikusten dute. Bertan dago, baina ez dute alboan sentitzen".

Sentsibilizazioaren gogoeta ez litzateke, halere, gazteetara soilik mugatu behar. Izan ere, gertutik ukitzeak beti edukitzen du eragin handiagoa.

"Beldurragatik gauean taldean etxeratzea normaltzat" hartzen den jarrera dela azpimarratu du Pavok, aurreko belaunaldikoek egin ohi duten bezala. Mutilak, berriz, "ez dira ikara horren guztiz jabe. Lapurtuak izateko beldurra eduki dezakete, baina ez da sentsazio bera".

Hizkera eta komentarioak

Kuadrilategiko begiraleak ez daude bereziki kezkatuta gaztetxoen hizkerarekin. Noizbehinka komentarioren matxistaren bat entzuten badute ere, "ez da ohikoena izaten". Artetxek aipatu du institutuetan zehar eman duen ikastaroren batean egokitu zaiola halakoak entzutea, behin edo behin. "Gehienbat, kirolari eta indarrari lotutakoak". Zentzu horretan, ez dute uste okerrera egin duenik egoerak. Are gehiago, euren perzeptzioa da gaur egun "kontu handiagoa" dutela komentario horiek egiteko garaian.

"Ez dira leloak. Gazteek badakite zer dagoen ondo eta zer gaizki". Hala ere, nabarmendu dute gauza bat dela eskolan edo eskolaz kanpoko ekintza antolatuetan duten jarrera eta beste bat, denbora libretan. "Guk ez dakigu aisialdian eta lagun artean zer nolako jarrerak erakusten dituzten, eta ez dugu informazio handirik haien arteko erlazio ereduez".

"BELDURRAGATIK GAUEAN TALDEAN ETXERATZEA NORMALTZAT HARTZEN DA"

"EGUN, KOMENTARIO MATXISTAK EGITERAKO ORDUAN KONTU HANDIAGOA IZATEN DA"

Kontrolaren inguruko kezkak

Aditu batzuek kezka agertu dute sare sozialek eta teknologia berriek gaztetxoen artean eragiten dituzten erlazio ereduak direla eta. Komunikatzeko formak aldatu dira, eta, horiekin batera, gaztetxoek bikote harremanetan izaten dituzten joerak.

'Genero indarkeriaren perzeptzioa nerabezaro eta gaztaroan' izeneko ikerketa plazaratu zuen CISek 2015ean. Elkarrizketatuen herenek azaldu zuten kontrol jarrerak "onargarriak" edo "ekidinezinak" zirela. Hala, landu beharreko esparru gisa identifikatu zuten.

Telefono mugikorren gehiegizko erabilera bai, baina kontrol egoera nabarmenik ez dute topatu Kuadrilategiko begiraleek.Hala ere, saiatzen dira, ahal den heinean, gailuak euren saioetatik kanpo uzten.

"Hasi aurretik, telefonoak kutxa batean gordetzeko eskatzen diegu, bestela ez dute jaramonik egiten", dio. "Horregatik, zaila zaigu ikustea, bikote harremanen bat badute, zer nolako jarrerak dituzten horietan".

Arriskuan dauden ume eta nerabeak laguntzen dituen Anar Fundazioko adituen ustez, kezkagarriena da emakume gazte askok kontrol egoera horiek ez dituztela "arriskutsu" bezala ulertzen. Esaterako, bikotekideari mugikorra erakutsi behar izatea "konfiantza" zeinu bezala ikusten dute "konfiantza ezakoa" baino.

Lotsa ala intimidazioa?

Oraindik ere, orokorrean, gizonezkoak irekiagoak direla edota parte hartzeko joera handiagoa dutela uste dute askok; emakumeak lotsatiagoak direla argudiatuz. Egoera horien atzeko jarrera matxista naturaltzat hartu izan dira gizartean.

Halakoak topatzea, askotan, "zaila" da Artetxeren eta Pavoren ustez. Izan ere, zuzentzen dituzten taldeak ez dira proportzionalak neska eta mutilen kopuruari dagokionez.

"Batzuetan, mutilek hartu izan dute ekintzaren 'zentralitatea', baina gehiago direla eta euren artean harreman handirik ez duten koadriletan aritzen direla kontuan hartu behar da".

"Sortu dugun talde giroak pozten nau gehien"

GORKA ARISTEGI LOKE TALDEAREN JUDO ATALEKO ARDURADUNA

Emaitza onak lortu dituzte LOKEko judokek azken hilabetetan. Denboraldiaren fase erabakigarrian sartuta daudela, balorazio postiboa egin du arduradun Gorka Aristegik

Martin Vicioso

Nabari da kategoria guztietan LOKEko judokek egiten duten lanarekin pozik dela Gorka Aristegi. Domina ugari eskuratu dituzte azken asteotan, baina horren gainetik sortutako talde giroak asebetetzen du gehien.

Durangoko Lehiaketa Internazionaletik bost domina ekarri dituzue. Pozik egoteko moduko emaitzak dira.

Bai. Kadeteek zilarrezko bi eta brontzea lortu zuten, eta infantilek brontzezko beste bi domina. Maila oneko txapelketa zela kontuan hartu behar da. Izan ere, Frantziatik eta Portugaldik etorritako judokek hartu zuten parte. Emaitzekin eta edukitako jarrerarekin pozik gaude.

Eneko Eizagirre, berriz, Espainiako Txapelketara sailkatu da junior mailan.

Zaragozan jokatu zuen Iparraldeko sailkapen fasea eta finalera iritsi zen. Oraindik kadetea da, eta kategoria handiagoko txapelketa batean lehiatzearen esperientza bizitzera doa. Bere helburu nagusia kadete mailako Txapelketak dira. Hala ere, oso animatuta ikusten dut.

Oro har pozik zaudete egiten ari zareten denboraldiarekin?

Gorka Aristegi Eneko Eizagirre judokarekin batera. LOKE JUDO

Oso denboraldi polita ari gara egiten. Egia da emaitza deigarrienak kadeteenak direla, baina denekin gaude pozik. Ikasketak direla eta, judoka batzuk kanpoan daude eta beste batzuek ezin dute nahi adina entrenatu. Hala ere, kategoria guztietan lehiatzen gara eta klub guztiek ezin dute hori esan.

Zeintzuk dira hurrengo hilabetetako erronkak?

Esan bezala, hilaren 11ean junior mailako Espainiakoa lehiatuko du Eizagirrek. 25ean, aldiz, kadeteek Euskadikoa dute. Egun berean arituko dira infantilak Gipuzkoako Txapelketan, eta apirilean Euskadikoa. Tartean, beste txapelketaren bat jokatuko dugu egutegian ondo txertatzen badugu.

Emaitzetaz haratago, pozik zaudete talde giroarekin?

Bai. Emaitza onak eskuratzea garrantzitsua da guretzat, noski. Baina gehiago erreparatzen diogu prozesuari eta sortzen den talde giroari. Presarik gabe egiten dugu lan, gure kirolaz gozatzen eta etaparik erre gabe. Gainera, dominak ere irabazten ditugu. Beraz, egiten dugun lanak eta metodoak fruituak ematen ditu. Asteburu batzuetan hitzordu asko ditugu eta, horregatik, nirekin batera Asier Sagasti eta Iñigo Matxain entrenatzaileek egiten duten lana asko baloratzen dut. Oro har, pozik gaude klubaren egoerarekin.

"ADIN TARTE GUZTIETAN LEHIATZEA POZGARRIA DA; EZ DA JUDO KLUB GUZTIETAN GERTATZEN"

Herritar ugarik hartuko du parte etzi Donostiako Lilatoiean

Igandean 28. Lilatoia korrituko da Donostiako kaleetan zehar, 5 kilometroko ibilbidean

Txintxarri

Inoiz baino herritar gehiagok eman du izena etzi korrituko den Lilatoiean parte hartzeko. 138 emakume lasarteoriatar izango dira Donostiako Boulevardeko irteeran goizeko 10:30ean.

5 kilometroko ibilbidea egingo dute Donostiako kaleetan barrena. Alderdi Eder zeharkatu eta Perla aldera abiatuko dira korrikalariak. Ibai aldetik Zurriolako zubira bueltatuko dira Groseko norabidea hartzeko. Saguesera iritsi aurretik Nafarroa hiribidea hartuko dute, bertako biribilgunean buelta eman eta Boulevardean bukatzeko.

Lasterketa hasi eta ordu erdi lehenago Aero-Zunbarekin egingo dute beroketa korrikalariek. Lasterketa amaitu ondoren, tripak asetu eta egarria baretzearren korrikalariak gonbidatuta daude Alde Zaharrean barrena egingo den 'Lila-Pote'-an parte hartzera.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

INFANTILEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Añorga KKE
Larunbata. 14:15. Michelin.

EMAKUMEEN IGOERA FASEA

Ostadar SKT - Mutriku FT
Larunbata. 15:45. Michelin.

ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

Oiartzun KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:15. Karla Lekuona, Oiartzun.

ERREGIONALEN 1GO MAILA,

Ostadar SKT - Euskalduna SD
Larunbata. 17:30. Michelin.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Touring KE - Ostadar SKT
Larunbata.20:00 . Fanderia, Errenteria.

KADETEEN OHOREZKO MAILA,

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE
Igandea. 12:30. Michelin.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Kattagorri Insausti - Also
Ostirala. 19:45. Kirolgunea.

Izkiña - Viña del Mar
Ostirala. 20:45. Kirolgunea.

Indaux - Aita Amari
Larunbata. 09:30. Kirolgunea.

Reformas Lagunak - Ilargi
Larunbata. 10:30. Kirolgunea.

Trumoi - Txoko
Larunbata. 11:30. Kirolgunea.

GIPUZKOAKO 1GO MAILA

Euskalduna- Cecilia Ostadar
Larunbata. 19:15. Alluralde, Andoain.

Bilkoin Legorreta - ISU Leihoak
Ostirala. 20:30. Harripila, Legorreta.

3. NAZIONAL MAILA

Ostadar Antonio Aroztegia - Muskiz Areto Futbola
Larunbata. 18:00. M.Chourraut Kiroldegia.

GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA

Kafe Buenetxea - Summa Aldapeta 'A'
Igandea 11:15. M.Chourraut kiroldegia

Summa Aldapeta 'B' - Lasarte Kafe Bar
Igandea. 10:30. Aldapeta, Donostia.

SASKIBALOIA

ERRENDIMENDUKO KADETEAK

Ostadar SKT - Bera Bera
Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia

SENIOR EMAKUMEZKOA, 1GO PROBINTZIALA

Bera Bera - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Manteo, Donostia.

ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK

Aelvasa Oiarso - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Don Bosco, Errenteria.

Zast Orio ZKE - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Aritzbatalde, Zarautz.

PARTIZIPAZIOKO KADETEAK

Goierri - Ostadar SKT
Igandea. 10:45. Aldiri kiroldegia, Urretxu.

SENIOR GIZONAK, 3. PROBINTZIALA

ARRI BKL Bideluze - Ostadar SKT
Igandea. 12:30. Antzizar kiroldegia, Beasain.

IGERIKETA

BENJAMINAK ETA ALEBINAK

Buruntzaldea IKTko igerilari alebin eta benjaminak Alebin Liga eta KZL jokatuko dute.
Larunbata. Majori kiroldegia, Ordizia.

TXIRRINDULARITZA

INFANTIL, KADETE ETA JUNIOR

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako txirrindulariek froga ezberdinak dituzte. Juniorrek Deban, kadeteek Beasainen eta infantilek Hondarribian

MENDI LASTERKETA

AFIZIONATUAK

Zenbait herritar Aiako Mendi Lasterketan.
Igandea. 10:30. Aia.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Babyauto Zarautz - Eibar RT
Ostirala. 19:30. Asti, Zarautz.

18 URTE AZPIKOEN LIGA

Durango RT - Gure Etxea Beltzak
Larunbata. 12:15. San Roke, Elorrio.

16 URTE AZPIKOEN LIGA

Durango RT - Gure Etxea Beltzak
Larunbata. 11:00. San Roke, Elorrio.

12 ETA 10 URTE AZPIKOAK

Nafarroa Mule - Hernani RT - Gure Etxea Beltzak (lagunartekoak)
Igandea, Baigorri.

GIMNASTIKA

SENIORRAK

LOKEko seniorrak 'Irunesa' Txapelketan hartuko dute parte
Igande arratsaldea. Artaleku, Irun.

Mikel Esnal, Jon Ibargoyen eta Itsaso Tolosa Iruñeako igerilekuan BURUNTZALDEA IKT

Euskal Herrikoetan txukun Buruntzaldea IKTko kideak

Emaitza onak lortu dituzte Buruntzaldea IKTko igerilariek pasa den asteburuan jokatutako Euskal Herriko Neguko Txapelketetan. Domina eta Espainiako Txapelketa lehiatu ahal izateko gutxieneko marka ugari lortu zituzten

Martin Vicioso

Gipuzkoako Neguko Txapelketetan sekulako maila eman ostean, Buruntzaldea IKTko igerilariek jarraipena eman zioten orain arteko lanari. Pasa den asteburuan, infantilek Euskal Herriko Txapelketa jokatu zuten Irungo Azken Portu igerilekuan, eta jubenilek konpetizio bera lehiatu zuten Iruñeko Amaya Hirian. Bestalde, leku berean, Nahia Zudairek Igeriketa Egokitukoan hartu zuen parte.

Emaitza onak lortu zituzten denek. Dominak eta marka berriak ezarriz batzuk, eta haien marka onenetatik gertu aritzen besteak.

Ohiko mailari eutsiz

Infantil mailako igerilariek, berriro ere, lehiaketa txukuna egin zuten. Hiru urrezko domina eskuratu zituen Leire Martinek, 400 libre 200 bular eta 800 libre frogetan. Horietan guztietan, Espainiako Neguko Txapelketerako gutxieneko denborak gainditu ditu, norberaren eta taldearen aurreko markak gainditu.

Ainhoa Martinek beste bi domina etxeratu zituen: urrea 200 bizkarreko lasterketan, eta zilarra 400 estiloetan. Nora Qian Villamedianak brontzea lortu zuen 100 bizkar frogan, beste froga batzuetan bere marka pertsonala hobetzeaz gain.

Paula Sevillano ondoezik aurkitu zen, eta ezin izan zuen Txapelketan parte hartu.

Mutilek ere maila ona erakutsi zuten Irunen. Lander Sorozabalek eta Xabier Alonsok marka pertsonalak hobetzea lortu zuten.

Junior eta absolutuak

Azken orduko bajak direla eta, ezin izan zuen ohiko taldea eraman Buruntzaldea IKT-k junior eta absolutuen Txapelketara. Mikel Esnal, Jon Ibargoyen eta Itsaso Tolosa lehiatu ziren Iruñean.

TALDEKO IGERILARI GUZTIEK PARTE HARTU EZ BAZUTEN ERE, EMAITZA ONAK LORTU ZITUZTEN BESTE BEHIN

Ibargoyenek 100 libreetako bere marka hobetu zuen 4 segundutan, 1:00,89ko denbora eginez.

Podiumetik gertu gelditu zen Itsaso Tolosa 200 bizkar frogan, eta 50 metro bizkarreko lasterketan ere maila ona eman zuen. Plaka elektronikoa ez zuen zuzenean ukitu, eta ehuneko batzuk galdu zituen horretan. Hala eta guztiz ere, urteko markarik onena egitea lortu zuen. Mikel Esnalek ere aurtengo denborarik onena egin zuen 50 tximeleta frogan.

Euskal Herriko Txapeldun geratu zen berriro ere Nahia Zudaire igeriketa egokituko Txapelketan Iruñeko Amaya Hiria igerilekuan. Parte hartu zuen lau frogetan garaile atera zen, aurretik ezarrita zituen marka pertsonalak hautsiz.

Finalerdietarako txartela ziurtatu dute Arteaga Ilak eta Erasunek

Dario eta Cecilio 22 eta 15 garaitu zituzten, eta ligaxkako bigarren postua finkotu dute gipuzkoarrek

Martin Vicioso

Bikote sendo eta erregularra direla frogatu dute Arteaga IIak eta Erasunek Binakako Promozio Txapelketa honetan. Ligaxkako bigarren postua ziurtatu zuten Eibarko Astelena pilotalekuan, bost garaipen eta bi porrotekin.

Berdinduta hasi zen Dario eta Cecilioren aurka jokatutako partidua. Markagailuan zortzina zirela, aurrelari errioxarrak arazo fisiko bat eduki zuen eta aldageletara jo behar izan zuen. Hortik aurrera, gehiago izan ziren gipuzkoarrak. Arteagak Dariok baino gehiago asmatu zuen eta Erasunek Ceciliok baino gutxiago galdu.

Finalerdiak

Laso-Iturriaga, Errandonea-Martija eta Peña II-Salaverri dira hurrengo fasera sailkatu diren bikoteak. Ez dute lan erraza izango Axier Arteagak eta Jon Erasunek. Izan ere, bikain aritu dira Laso eta Iturriaga txapelketa osoan zehar, eta beste bi bikoteek gora egin dute azken asteotan. Hala ere, bere onena emanez gero, aukera ona izango dute gipuzkoarrek.

Txukun aritu da Arteaga. TXINTXARRI

Hitzordu garrantzitsua LOKEko gimnastek Irunesa Txapelketan

Pixkanaka, denboraldian barneratzen doaz LOKE taldeko gimnastak. Eskola mailako lehenengo jardunaldiak egin dituzte jadanik, eta hurrengo hilabeteetan lehiaketa eta erakustaldi ugari dituzte agendan markatuta.

Bihar, Irun aldera egingo dute bidaia, 'Irunesa' Txapelketaren lehenengo edizioa jokatuko baitute gimnasta lasarteoriatarrek. Taldeko arduradun Maite Ruedak azaldu duenez, taldeka eta bakarka lehiatzeko asmoa dute.

Senior A taldeak bost pilotekin hartuko du parte Irunesan. Bakarkako atalean, aldiz, Garazi Gomez eta Aizpea Arroyo saiatuko dira pilotarekin ahalik eta lan onena egiten.

"Espero dugu zorte pixka bat edukitzea eta sariren bat etxeratzea", adierazi du Maite Ruedak.

Hurrengo astean, berriz, Euskadiko Liga jokatuko dute Azkoitian eta Udaberri Txapelketa Aretxabaletan

Babyauto Zarautzek ezin izan zuen Galizian garaipena eskuratu

Xabier Rekondo, Ander Rekondo, David Vega eta Xabier Prieto herritarak hasierako hamabostekoan izan ziren Ourenseko Unibertsitateko Campusean jokatutako partiduan.

Zarauzko taldeak ez zuen orain arteko norgehiagokarik onena egin, eta atzetik jokatu behar izan zuten partiduaren zati mardul batean.

Hala ere, gipuzkoarrek garaipena eskuratu ahal izateko aukera eduki zuten azken minutuetan. Izan ere, Xabier Rekondo lasarteoriatarrak markagailuan berdinketa ezartzen zuen entsegua lortu zuen partidua amaitzeko zazpi minutu geratzen zirela. Ezin izan zioten hari eutsi, eta galiziarrek azken entsegua lortu zuten, 39-32koa finkatuz.

Bera Beraren garaipena dela eta, donostiarrengandik –igoera postuetatik– hamaika puntura dira, baina sailkatzeko aukerek ez dute alde egin oraindik, nahiz eta dezente zaildu diren.

Gorka Britek (eskubian, baloiarekin) ez zuen huts egin eta beste gol bat sartu zuen. Zortzi daramatza honezkero. TXEMA VALLES

Urrats garrantzitsua egin du Ohorezko Erregionalak

Maila mantentzeko borroka betean dago murgilduta Ostadar SKT. Joan den ostiralean Touring-i 3-2 irabazita beste pauso bat egin du Mikel Medina eta Gabi Sanchezen taldeak. Ligaren azken herena falta dela, 22 puntu dituzte eta 15. postuan daude.

Iñigo Gonzalez

Berebiziko garaipena lortu zuen Ostadar SKTk joan den asteko ostiralean, Oreretako Touring taldeari 3-2 irabazita. Maila mantentzeko lehian bete-betean murgilduta jarraitzen dute Mikel Medina eta Gabi Sanchezenek: liga bukatzeko heren bat falta dela, 22 puntu dituzte eta hamabosgarren postuan daude, jaitsiera postuetatik kanpo, baina azkeneko taldeak oso gertu dituztela. Bihar Oiartzunekin neurtuko dituzte indarrak Karla Lekuona zelaian.

34. eta azken jardunaldia gero eta gertuago dago, eta horregatik final kutsua hartzen dute jada partidu guztiek. Are gehiago maila mantentzeagatik lehian ari direnentzat. Hori dela eta, erabat kontzentratuta eta intentsitate handiz ekin zion ostiraleko norgehiagokari Ostadar SKTk, eta espero baino lehenago jaso zuen saria: 12. minuturako 2-0 ari zen irabazten, Rober Gutierrez eta Gorka Britek sartutako golei esker. Partiduaren gidoia aldatu bazen ere, etxeko taldeak fin jarraitu zuen lanean eta hirugarren gola sartzetik gertu egon zen, baina ez zuen asmatu. Atsedenaldi-garaia hurbildu ahala Touring jabetu zen baloiaz, eta, aukera garbi askorik sortu ez bazuen ere, horietako bat baliatu zuten 2-1ekoa sartu eta lehia estutzeko. 35. minutua zen. Ez zen gehiago mugitu markagailua lehen zatian.

Bigarrenari hobeto ekin zion Touringek. Baloiaren jabe izaten jarraitu zuen, baina lehen 45 minutuetan bezala, aukera garbirik sortu gabe. Ostadarrek, berriz, zuzen jokatu eta ahalik eta gutxien arriskatzen saiatu zen, baloia jokoan jartzerakoan batez ere. 2-2koa 3-1ekoa baino gertuago zegoela zirudien, baina Xabi Ugaldek maisuki jaurtitako falta bati esker bi goleko aldea berreskuratu zuen Ostadarrek. Hogei minutu falta ziren partidua bukatzeko. Etxeko taldea aldea mantentzera mugatu zen eta gehiago arriskatu zuten kanpotarrek. Halere, Ostadarrek ez zuen bereziki gaizki pasa 88. minutura arte. Touringek aldaratze bat baliatu zuen 3-2koa sartzeko. Bukaerara arte estutu zuen, baina puntuak Michelinen geratu ziren aspaldiko partez.

BIGARREN ITZULIA HASI ZENETIK, SEI PARTIDUTAN ZORTZI PUNTU BILDU DITU OSTADARREK

Bigarren itzulian, askoz hobe

Sei partidu jokatu dira bigarren itzulian, eta hemezortzitik zortzi puntu bildu ditu Ostadarrek. Askoz hobeto ari da orain, eta datuek erakusten dute: lehen itzulian bederatzigarren jardunaldira arte ez zuen partidurik irabazi, eta aurreneko sei jardunaldietan puntu bakarra zeukan poltsikoan. Dinamika on hau mantendu nahi du taldeak.

TXEMA VALLES

Aitor Manso kart pilotua, saritua

16 urteko Aitor Manso kart pilotu gazteak gidari senior onenaren saria jaso zuen joan den astean, Agurainen ospatutako Kirolaren Galan. Angel Euskal Herriko Automobilismo Federazioko lehendakari Angel Gurrutxagak eman zion garaikurra herritarrari. Martxoaren 8an ekingo dio aurtengo denboraldiari, Tordesillasen (Valladolid).

Buruntz Azpi elkarteak etzi egingo du ehiza txapelketa

Buruntza mendian eta inguruetan ehiza txapelketa soziala egingo du Buruntz Azpi elkarteak etzi, 09:00etan hasi eta 13:00era arte. Gaur da izena emateko azken eguna

Bestalde, elkarteko kideek gogorarazi nahi dute asteazkenero arrantza lizentziak ateratzen aritzen direla Buruntz Azpin bertan, ordutegi honetan: 19:00etatik 20:30era

GHPko irabaziak, Ostadarren Kirol Egokitu sailarentzat

Aurtengo Gabonetako Haur Parkean ez zen GKErik aurkeztu sarrera eta taberna lanak kudeatzeko eta enpresa antolatzaileak, Animak, hartu zuen bere gain. Irabaziak, 1.500 euro guztira, Ostadar SKT-ren kirol egokituen atalari esleitu zaizkio. Alkate Jesus Zaballosek nabarmendu zuen, Lasarte-Oriako Udalak "inklusioaren aldeko konpromisoa" erakutsi du ekintza honen eta egiten dituzten "beste askoren bitartez".

Ostadar SKTren izenean Amaia Cadarsok hitz egin zuen. Udalak azaldutako "konfiantza" eskertu zuen, eta adierazi kirol egokituan aritzeko materiala garestia denez, eskertzekoa dela edozein laguntza.

Buruntzazpiko txirrindulariak hasi dira errepidean

Pistako lehia alde batera utzi, eta errepideko lanei ekin diete Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako kideek. Kadeteek Ibaetako sarian hartu zuten parte, eta Asier Pozo bigarren sailkatzea lortu zuen. Iñaki Errazkin infantilak ere postu bera lortu zuen Oiartzunen. Seniorrak, berriz, Udaberri oroigarria korritu zuten Eibarren.

Hirugarren dira areto futboleko jubenilen bi taldeak

Areto futboleko atala gaztea izan arren, emaitza onak ari dira lortzen Ostadar SKTren jubenilen bi taldeak. Sailkapeneko hirugarren koskan daude Kafe Bar Lasarte eta Kafe Bar Buenetxea, bakoitza bere multzoan.

Lehenak Summa Aldapeta B izango du aurkari aste honetan, eta hiru puntuak atera beharko dituzte, bi puntura baitute atzetik datorren Inter Fachadas Gipuzkoa.

Kafe Bar Buenetxeak, aldiz, aurretik duen Summa Aldapeta A-ren kontra jokatu beharko du etxean. Irabaztea lortuz gero, bigarren postutik puntu bakar batera kokatuko lirateke.

Arreta profesionalena, zugandik gertu

GREMIOEN GIDA 2017

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD EZ ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Arkitektura eta Barne-Diseinua

borobil arkitektura

Kale Nagusia 27-29 behea
20160 Lasarte-Oria
943 50 78 51
info@borobilarkitektura.eus
www.borobilarkitektura.eus

- Energia ziurtagiriak
- Eraikinen ITEak
- Aktibitate lizentziak
- Proiektuak
- Erreformak

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

Iturgintza

ILLARRETA ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52 -
Taillerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

Igeltseritza

Josue Igeltseritza S.L.

606 37 21 05
josueigeltseritza@euskalnet.net
Atallu pol. 28
20170 USURBIL

Igeltseritza orokorra
Estalkien berriztatzeak
Fatxaden estaldurak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

josueigeltseritza@euskalnet.net

Kristaldegia

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522
20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

Hurrengo gida martxoaren 24an.
Parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66

ZORION AGURRAK

Oier
ZORIONAK TXAPELDUN! ondo pasa zure 8. urtebetetzea, muxu asko eta besarkada andi bat, Enaut aiton-amona eta familien partetik.



Urko
Zorionak Pottoki zure lehenengo urtebetetzean!!! Muxu asko asko etxekoen partetik.



Eli
Zorionak Eli!! Maroko aldetik pastatxo batzuk ekarriko zizkiguzun ospatzeko ezta?? Ondo pasa zure eguna!!



Maialen
Zorionak Maialen zure urtebetetzean! Muxu handi bat aita, ama eta Naikariren partez.

JAIOTAKOAK

Martina Herrero Perez. Otsailaren 23an.
Iker Granado Ibañez. Otsailaren 23an.

HILDAKOAK

Hermelo Ossorio Mendez. Martxoaren 2an, 79 urte.
Julian Benito Bernabé. Martxoaren 2an, 92 urte.
Laura Alvarez Rodrigo. Otsailaren 27an, 83 urte.
Juana Artola Pagola. Otsailaren 25ean, 87 urte.

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU

Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko deitu 663 515 265

2. LAN ESKAINTZAK

202. ESKAERA

Emakumea eskaintzen da gauetan pertsona helduak zaintzeko. Vilma. 634 278 198

3. SALEROSKETA

301. SALDU

Sofa ia berria saltzen da, gris iluna 2 metro luzekoa eta bizkarra zein oinazpia mugitzen dira. 943 366 114

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 03	URBISTONDO
Larunbata, 04	LASA
Igandea, 05	LASA
Astelehena, 06	URBISTONDO
Asteartea, 07	GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 08	ORUE
Osteguna, 09	DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (*www.cofgipuzkoa.com*).

GUTUNA

Dispertsioaren ertzak

NAIKE DIEZ URRUZOLA - ETXERATEKO KIDEA.

Aurreko asteartean, hilak 28, 14 urte bete ziren Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi herritarrek bizia galdu zutela euren senide Juankar Balerdi preso politikoa bisitatzera zihoazela Almeriako espetxera. Mendekuan oinarritutako dispertsio politikak ostu zien bizitza bi senideoi.

Dispertsioak hamaika aurpegi ditu, hamaika aurpegi goibel. Helburu zehatz batekin eratua izan zen ingeniaritza juridiko-politikoa: preso politikoaren ingurugiro oro deuseztea, deserriratzea. Egun bataz beste 800 kilometro baino urrunago daude euskal preso politikoak, astero senide eta lagunak ehunka kilometro egitera behartuak direlarik.

Lasarte-Oriako 6 euskal presoen senideek, adibidez, astebururo-astebururo ia 6000 kilometro egiten dituzte orotara errepidean.

Baina sakabanaketa politika ez da kilometro kontua soilik, dispertsioa eguneko 24 orduetan eramaten dugun zama astuna da, penitentzia bat bezala ere irudika daitekeena. Senidearen bizitzaren erdigunea espetxean duen ahaide maitearen egoeran ardaztatzen da. Paketeak, bisitak, telefono deiak, hurrengo bidaia... horiek bihurtzen dira gure eguneroko kezka eta ardurak, bakoitzaren 'ni'-a albo batera utziz. Espiral psikologiko bortitz batean murgiltzen garelarik euskal preso politikoen senide eta lagunok.

16 biktimei ebatsi die bizitza dispertsio politikak, apenas errekonozimendurik duten 16 silueta ilun. Gatazka eta erabaki politiko batzuen erruz gertatutako erailketak dira hauek, eta ez Eusko Jaurlaritzak katalogatzen dituen 'auto istripu' arruntak. Euren autoa ez zen Tobarran (Albacete) inguruan egon behar, gutxiago bere senidea etxetik mila kilometrotara sakabanatua.

Gatazka politikoa egun aktiboki sufritzen dugunak baikara euskal preso politikoen senide eta lagunak, eta bakearen eta konponbidearen bidean, memoria historiko inklusibo eta osoa eraikitzeko ezin da errealitateari muzin egin. Argi, Iñaki eta beste 14en biktima izaera eta, bide batez, sufritu zuten eta ari garen dispertsio politikaren amaiera aldarrikatzen dugu. Egia eraiki beharra dugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria / txintxarri@txintxarri.eus

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa
Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega, Martin Vicioso.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi.

Informatikoa
Xabier Amadoz.

Administraria
Arkaitz Urdapilleta.

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA

LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 03

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Islada Ezkutatuak taldeak Udaletxeko sarreran erakusketa zabalduko du Txaldatxurren aurkitutako Gerra Zibileko materialarekin. Hau 18:30ean izango da eta jarraian bi hitzaldi eskainiko dira; "Artefactos artesanales en el frente de Gipuzkoa" eta "Txaldatxur, fronte baten ertza". Sarrera irekia.
Antonio Mercero, 19:00etan.

ANDOAIN Antzerkia
Hika antzerki taldearen 'Koaderno zuria' lana ikusi ahal izango da. Begoña eta Arrate ahizpak dira. Ama hil berri dute eta hogeita bost urteren ondoren jaiotetxean egingo dute topo, ustekabean. Bi ahizpak aurrez aurre elkarri kontuak eskatzen hasiko dira. Nahikoa lan izan du bakoitzak bere bizitza eraikitzen. Nahikoa lan bizitzen. Sarrera 12 euro.
Bastero, 21:30ean.

LARUNBATA 04

LASARTE-ORIA Andaluzia Eguneko ospakizunak
Andaluziaren eguna ospatzeko, herriko Semblante Andaluz elkarteak antolatuta, 'Haurren eguna' izango da hau. Horrela izanda, Porrotx pailazoa, Jalgune Elkartea, Gitanillas del Alba eta Duenderen saioak izango dira. Ondoren, askaria egingo da lagun artean. Parte hartze irekia.
Semblante Andaluz elkartea, 17:00etatik.

LASARTE-ORIA Ikastaroa
Autodefentsa feminista tailerra egingo da Lasarte Moria taldeak antolatuta.
Elebeltz, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Afaria
Lasarte Moria taldeak antolatuta afari fenista egingo da Martxoaren 8aren bueltan. Izena eman behar da aurretik Orbela Belardendan edota Furia Beltza tabernan.
Furia Beltza, 20:30ean.

LASARTE-ORIA Andaluzia Eguna.
Bihar haurren eguna izango da eta 17:00etatik aurrera hamaika ekintza izango dira etxeko txikiei zuzenduta. Ekitaldiei hasiera emanez Porrotx pailazoa ariko da.
Larunbata eta igandea, Semblante Andaluz

IGANDEA 05

LASARTE-ORIA Andaluzia Eguneko ospakizunak
Egun osoko ekintza egitaraua izango da ospakizunekin jarraitzeko Semblantek antolatutakoa; 11:00etan Meza rozieroa, Semblante Rociero koruaren parte hartzearekin. 14:15ean Andaluziaren himnoa. 14:30etan, Herri-bazkaria egingo dute. 17:30ean 'El ruiseñor de la Mancha' flamenko-kantariaren emanaldia, gitarrarekin 'Manolo de Badajoz' lagun duela. 20:00etatik aurrera berriz, dantzaldia izango da.
Semblante Andaluz elkartea, 11:00etatik.

LASARTE-ORIA Batzarra
Intza Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordeak ezohiko batzarra egingo du. Honetara bazkide guztiak deituta daude.
Intza Elkartea, 9:00etan.

ASTIGARRAGA Dantza
Plaza dantza saio irekia egingo da hilero bezala.
J.Barandiaran plaza, 12:30ean.

ASTELEHENA 06

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria
Martxoaren 8ko egitarauaren baitan, Ipuin kontalari saio berezia izango da. Parte hartze irekia.
Biyak Bat elkartea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa
Martxoaren 8ko egitarauaren baitan antolatutako kartelen erakusketa izango da ikusgai osteguna bitarte.
Antonio Mercero, 17:00etan.

ASTEARTEA 07

LASARTE-ORIA Erakusketa
Martxoaren 8ko egitarauaren baitan antolatutako kartelen erakusketa ikusgai.
Antonio Mercero, 17:00etan.

ASTEAZKENA 08

LASARTE-ORIA Erakusketa
Martxoaren 8ko egitarauaren baitan antolatutako kartelen erakusketa.
Antonio Mercero, 17:00etan.

OSTEGUNA 09

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria
Martxoaren 8ko egitarauaren baitan, Ipuin kontalari saio berezia izango da 5 urtetik aurrerako umeentzat.
Haur liburutegia, 17:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Axel, heroi txikia
Igandea: 17:00.

Figuras ocultas
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Ballerina
Larunbata: 17:00 (eus).
Igandea: 17:00 (gaz).

Lion
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

URNIETA

SAROBE

El libro de la selva
Igandea: 16:00.

USURBIL

SUTEGI

Maitagarri

Amandrea
Igandea: 17:00.

URBIL

Ballerina
Ostirala: 16:00, 18:00.
Larunbata: 16:00, 18:00.
Igandea: 16:00, 18:00.

Batman: La lego película
Ostirala: 15:45, 18:00.
Larunbata: 15:45, 18:00.
Igandea: 15:45, 18:00.

Cincuenta sombras más oscuras
Ostirala: 16:45, 19:15, 21:45.
Larunbata: 16:45, 19:15, 21:45.
Igandea: 16:45, 19:15, 21:45.

El guardian invisible
Ostirala: 16:30, 19:10, 20:10, 22:00, 00:15.
Larunbata: 16:30, 19:10, 20:10, 22:00, 00:15.
Igandea: 16:30, 19:10, 20:10, 22:00.

Es por tu bien
Ostirala: 15:45, 17:50, 20:00, 22:45, 00:55.
Larunbata: 15:45, 17:50, 20:00, 22:45, 00:55.
Igandea: 15:45, 17:50, 20:00, 22:45.

Fences
Ostirala: 16:15, 21:40.
Larunbata: 16:15, 21:40.
Igandea: 16:15, 21:40.

La la Land
Ostirala: 19:00.
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.

La Gran Muralla
Ostirala: 20:20, 22:40, 00:55.
Larunbata: 20:20, 22:40, 00:55.
Igandea: 20:20, 22:40.

Logan
Ostirala: 16:20, 19:20, 22:10, 00:30.
Larunbata: 16:20, 19:20, 22:10, 00:30.
Igandea: 16:20, 19:20, 22:10.

Manchester frente al mar
Ostirala: 00:20.
Larunbata: 00:20.

Moonlight
Ostirala: 18:10, 20:30, 22:45, 00:50.
Larunbata: 18:10, 20:30, 22:45, 00:50.
Igandea: 18:10, 20:30, 22:45.

Múltiple
Ostirala: 15:45, 00:55.
Larunbata: 15:45, 00:55.
Igandea: 15:45.

T2: Trainspotting
Ostirala: 22:05, 00:40.
Larunbata: 22:05, 00:40.
Igandea: 22:05.



LABURPENA

Axel, heroi txikia
Zuz.: Leo Lee. **Herr.:** Txina. (2014). **Hizkuntza:** Euskara
Iraupena: 80 minutu.

Axelen abenturak

Leo Leek idatzi eta zuzendutako filmak Kakahuete planeta jasaten ari den lehorte larria du abiapuntu. Ur gabeziak Bonta kaktusari eragiten dio, planetako biztanleak urtetan zehar elikatu dituen landareari. Gauzak horrela, Baraboo, desertuan kokatuta dagoen hiria, aldaketa klimatikoaren ondorio lazgarriak pairatzen ari da modu berezian.

Axel Baraboo hiriko gazte zalapartaria da. Egun batean, Bontas basoak hiria salbatuko duenaren ametsaldia izango du eta Bontas basora bidaiatzea erabakiko du, Jono bere lagun lotsatiarekin batera.

Iman Beltza bailarako harri flotatzaileen bitartez egiten duen bidaian zehar arrisku handiekin egingo dute topo, baina lagunak ere egingo dituzte, Pootron izeneko ostruka erraldoia esaterako, bere lagun leiala bilakatuko dena.

Bere buruari benetako heroi bat dela erakusteko, ordea, Axelek Musker Erregeari egin beharko dio aurre. Musker Erregeak Bonta basoko landare guztiak bere menpe izatea eskatuko du Gaga printzesa askatzearen truke.

BITXIKERIAK



Jose Antonio Rubioren azken lanak salgai daude Maite liburudendan. JOSE ANTONIO RUBIO

'Los renglones espirales', herrian girotutako nobela

Lasarte-Orian girotutako nobela argitaratu berri du Jose Antonio Rubio Leongo idazleak; urteak daramatza gidoigile moduan komikiak idazten. Denbora askoz bizi izan zen Lasarte-Orian eta oroitzapen ugari ditu herriaz, Sasoeta auzoaz batez ere

Maddi Noriega

'Los renglones espirales', izenburu hori du Lasarte-Orian girotutako Jose Antonio Rubioren nobelak.

Leonen jaioa da lanaren egilea, baina hamasei urte igaro zituen, gaztetan, gurean; "zortzi urterekin iritsi nintzen Lasarte-Oriara eta 24 urtera arte bertan bizi izan nintzen".

Urte horietan guztietan Goi kalen bizi izan bazen ere, Sasoeta auzoan denbora ugari pasa zuela aitortzen du Rubiok; "oso oroitzapen politak gordetzen ditut Lasarte-Oriaz, eta bereziki Sasoetan igarotako urte haietaz".

Idazle profesionala ez bada ere, urte ugari daramatza komikien munduan gidoigile gisa lanean. Orain arte argitaratutako lanen gehiengoa komikiak izan badira ere, azken lanak nobelak eta kontakizunak izan dira.

'Los renglones espirales' nobela idazten hasi zenean, lehenengo kapitulua Lasarte-Orian girotzea erabaki zuen "beti errazagoa delako ezagutzen duzun leku bati buruz idaztea". Horrela adierazi du Jose Antonio Rubiok; oso ondo oriotzen ditut Sasoetan eta bertako ikastetxean bizitako urteak, urte haien oso oroitzapen onak gordetzen ditut".

Istorio guztia fikziozkoa bada ere, Sasoetako bizilagunek ezagun izan ditzakete nobelan agertzen diren hainbat detaile eta keinu.

Liburuaren kapitulu bakoitza kontakizun bat da eta hasiera batean, horien artean loturarik egon ezin daitekela pentsatu badaiteke ere, irakurtzen joan ahala, istorioari zentzua emango dioten loturak nabarmedu ahal izango ditu irakurleak.

Heriotzaz

Nobelako protagonistak, uste baino gertuago izango dute heriotza, eta zaila izango zaie haren atzaparretatik ihes egitea. Heriotzara gerturatzeko gonbita egiten dio Rubiok argitaratutako 'Los renglones espirales' nobelaren bitartez.

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 €tik + BEZ

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN, 100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA

PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN

DENA BARNE
Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: APIRILAK 11

943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

residencial zabaleta berri bizigunea